

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Volver a empezar
El desvan de.
Baga-Biga.
Iraupena: 35'36".
9,95 euro.

Irratirako moduko pop-rock bizia

5 CONTRA taldean ibilitako Alain Elordui eta Juanma Garciak iraganeko punk-rocka alde batera utzi eta proiektu berria abiarazi zuten 2006an. Hala, gaztelaniazko pop-rock kantuek idazten hasi ziren, melodia eta energiaz betetakoak. Rock kallejeroa delakotik gertu daude batzuetan, baita punk-popetik ere gitarrak indartzen dituztenean, eta reggaearekin ere ausartu dira, baina oinarrian lelo itsaskorreko pop-rock

bizia egiten dute. Hitzetan ezinegona, bakardadea, harremanak eta beraiek dioten moduan egunerokotasuneko kontuak batu dituzte. Lortu duten emaitza txukuna da, edozein irratitan entzuten diren kantuen parean egon daitekeena; eta soinua ere apartekoa da. Horretan zeresana izango dute Natxo Libertyk eta Kanadan masterizatua izanakin. Luzaroan diskoetxe bila ibili ostean hemen dute emaitza.

El desvan de. Alain Elordui

«Laster kontzertuak egiteko musikariok ordaindu beharko dugu»

El desvan de. Zeren edo noren desbana?

Gauza askorena, atea zabalik utzi dugu. Hasieran izena El desvan zen, baina "de" horrek joko gehiago ematen du hurrengo diskoetarako.

"Argiaren bila nabil". Aurkitu duzue? Badirudi disko honen atzean hausnarketa handia dagoela...

Bai. Denbora handia eman dugu disko hau egiteko, izugarri, eta behin gauzatu zenean argia ikusi genuen. 5 contra taldea genuenean ez zigun inork egina genuen diskoa kalerratu, eta honekin ere denbora luzea pasa behar izan dugu. Baga-Bigak baiezkoa ematean ilusioa berreskuratu genuen.

Zer ikasi zenuten 5 contra proiektuarekin?

Musika mundua aspalditik dagoela krisian: oso zaila dela zure alde egingo duten diskoetxeak aurkitzea eta laster kontzertuak egiteko musikariok ordaindu

beharko dugula. 5 contra desilusiogatik banandu zen. Gerora, zerbait komertzialagoa egitea bururatu zitzaidan eta Juanma eta biok kantuek idazten hasi ginen.



Natxo Libertyekin grabatu duzue eta masterizazioa Kanadan egin dute.

Bai, Natxo aspalditik ezagutzen dugu eta argi genuen grabaketa berarekin egingo genuela. Natxok ideia asko eman zizkigun eta gure kantuetan sinestu zuen. Hala, masterizazioa Kanadan egitea proposatu zigun gastuaren erdia berak ordainduta.

"Nik ez dut hor egon nahi zuek ez bazaudete"...

Bai, hala da. Aurrean entzulerik ez badugu ez dugu agertokian egon nahi; hori da guretzat garrantzitsuena. Era berean, ikusle bat edo 100 egon, guztia eman behar duzu! **Taldea bik baino ez duzuela osatzen diozue. Erosoagoa da horrela?**

Bai, berez taldea Juanmak eta Alainez osatzen dugu, baina gerora musikariak aurkitu genituen, musikari onak, eta zenbait erabaki guztion artean hartzen ditugu, baina ideiak eta abestiak bionak dira. Are gehiago esango dut,

kontzertuetan hainbat musikari ordezkatu egiten dira dituzten konpromisoen arabera. ■